

AMAIA MINER - DOBERA EUSKARA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

## “Doberak egin behar duena da Hernanin euskera normalizatzeko ereduak sortu eta zabaltzeko”

■ Doberak ostiralean egin zuen urteko batzarra ■ 2003ko proposamenak ere zerbitzuak eta proiektu konkretuak biltzen ditu ■ Doberak ekainean zenbait ekitaldi egingo ditu 10garren urteurrena ospatzeko.

DOBERA Euskara Elkar-teak ostiralean egin zuen urteko batzarra. 2002ko balantzea, 2003ko egitasmoa eta zuzendaritza aukeratzeko izan ziren puntu nagusiak. Gaur egunean, Doberaren lanak eta proiektuek 600 pertsona eta elkar-terren babes zuzena dute bazkide eta Kronikako laguntzaile artean, eta erakunde publikoen laguntza ere badu. Doberak 192.000 euroko aurrekontua du 2003rako, eta Amaia Minerrek segituko du lehendakari. Hemen, bere gogoetak.

■ **KRONIKA:** Zein balantze egiten duzu Doberak 2002an egindako lanaz?

AMAIA MINER: Doberak iaz planteatutako egitasmoa hiru ardatz nagusi zituen: herritarrek euskerarekin sentsibilizatzeko, euskera erabiltzeko bultzatzea eta herri komunikabideen proiektua indartzea. Iazko lanarekin hiru bide horietan aurreratu egin dugu. Era berean, Doberak presentzia haunditzea zuen helburua, bai herritarrei begira eta baita bazkidei begira ere, eta hor ere eman ditugu pausoak.

■ **Zein izan dira proiektu nagusiak?**

Orain arteko zerbitzu eta lanak egiteaz gain, *Jolas eta Solas* proiektua jarri dugu martxan ikastoletako umeek eskola orduz kanpo euskeraz hitz egitea lantzeko. Proiektu horretan Elizatxo eta Urumea ikastoletako 200 ume inguruk parte hartzen dute eta oso ondo ari da funtzionatzen. Hernaniko historiari buruzko



Amaia Miner Doberako lehendakaria.

ikerketak bat ere egin genuen. Urko Apaolazak egin zuen eta argitaratzeko bidean da-gor. Liburuaz gain, ikerketa horri esker oso material aberatsa jaso dugu: 27 elkarrizketa bideoan grabatuta, argazki zaharrak... Kontzertuak ere antolatu ditugu, helduentzako bertso eskola egin da eta arrakasta handia izan du. Doberako web orri berria ere jarri dugu martxan.

Kronikari dagokionez, berriaz, 6garren eguna ateratzeaz gain, tirada asko igo da, (3.000 ale aste barruan eta 3.200 aste-burutan), eta geroz eta autofinantziazio gehiago du.

■ **Aurrera begira, nola enfokatzen du Doberak euskeraren normalizazioa?**

Hernanin euskeraren arazo

haundiena da euskera lautik batek hitz egiten dutela, eta hor egingo dugu lana. Nere ustez, Doberak egin behar duena da euskera normalizatzeko ereduak eta adibideak sortu, eta zabaltzeko. Lan horretan, gure planteamendua da jendearen beharrei erantzun dieten zerbitzuak eskaini eta komunikazioa lantzea. Hor kokatzen dira 2003ko proiektu konkretuak eta hor kokatzen da Kronika ere. Badaude beste normalizazio planteamendu batzuk, baina, lan asko eginagatik, asko bildu nahian eguneroko gauzetan eraginkortasuna galtzeko arriskua dute.

■ **Zuzendaritzak jarraitu egingo du.**

Doberan 2 urtez behin be-

### 2003KO EGITASMOA ETA PROIEKTUAK

□ Jendea euskera erabiltzera motibatu eta horretarako zerbitzuak eskaini. Euskeraren inguruko erreferentzia izan eta jendearengandik datozen eskariei erantzun.

□ Itzulpen zerbitzua, ikastaroak, lan eskaintza-eskaerak bideratu, euskeraren inguruko zerbitzuen informazioa bideratu.

□ Kronika indartu, 6 egunetan ateratzen jarraitu eta 7rako bidean jarri; 3.000 aleko tirada haunditzea segi eta autofinantziazioa sakondu.

□ Kultur ekitaldiak antolatu eta bultzatu. Maiatzean **labur metrai emanaldiak** daude.

□ **Hernaniko ahozko historiari** buruzko ikerketa argitaratu. Jasotako argazkiekin erakusketa jarri. Ikerketa horrek 27 pertsonen egindako elkarrizketak bildu ditu bideoan, eta horrekin **produktu audiobisuala** egingo da.

□ **‘Jolas eta Solas’** ikastetxeetan eskola orduz kanpo euskeraz hitzegiteko proiektua sakondu.

□ **Komikigintza eta sukaldaritza** ikastaroak.

□ **‘Hamaika arrazoi Udaltxeari euskeraz hitz egiteko’ unitate didaktikoa** berri, eta herriko beste elkartei, eta beste udalei zabaltzeko.

rritzen dira karguak. Oraingo zuzendaritza lanean jarraitzeko ilusioz eta gogoz zegoen eta batzarrak ontzat jotzeko du proposamena. □

## Plenoak onartu du Eskualdeko Garapen Agentzia osatzea

BURUNTZALDE osoko desarroiloa bultzatuko duen Garapen Agentzia martxan jartzea onartu du Udalak, ostegunean egindako Plenoan. Mertxe Etxeberria alkatearen esanetan Buruntzalde inguru hau da elkarlanerako eskualde-egitura propiorik ez duen inguru bakarra Gipuzkoan, eta alde horretatik uste du oso garrantzitsua dela Garapen Agentzia martxan jartzea. EA-EAJk ontzat jotzen du bailarako desarroilo ikuspegi hori, baina, uste du Garapen Agentziak gaur egun ez duela garantiarik ematen eskualde osorako izango denik. Botazioan abstenitu egin zen baina, lan taldean sartuko da. PSE-EE ez zen Plenoan izan.

Plenoak beste zenbait puntu ere onartu zituen. Besteak beste: 2003ko Udaletxeko Euskera plana, auzo elkartei eta beste zenbait taldeei uzten zaizkien lokalak hitzarmen bidez lotzea eta abar. Osteguneko Plenoan Villa Oriamendiko haritzaren etorkizunak sortu zuen eztabaida haundiena. Oposizioak eta Gobernu Taldeak informetako teknikoetan oinarritu zituzten beren argumentuak.

## Udalak ostiralean egingo du Ereñotzuko etxeen zozketa

EREÑOTZUN Protekzio Ofizialeko 12 etxebizitza egingo dituzte eta zozketa ostiralean egingo da. Zozketa, Pleno aretoan da, goizeko 10:00etan. □

### BILDU HERNANI

## Batzarra asteartean

BILDU Hernani plataformak batzarra egingo du asteartean eta hiru puntu nagusi tratatuko dira: firma bilketa plataformak hauteskundeetan ateratzeko eskubidea izatearen alde, hauteskundeetako programa eta hauteskunde zereendak. Bilera, Biterin da, arratsaldeko 20:00etan. □

www.kronika.net

kronika Interneten helbide berrian

KulunKa

- Egurraren zaharberritzea  
- Tapizeria  
- Artisautzazko marketeria

Kontserbazio eta zaharberritze lantegia  
Tellerigain, 49 - kulunka@gabiltza.org  
Tel. 943 551 739 - 667 721 434

EDARITEGIA  
**JOMERIKI**  
Kale Nagusia, 7  
55 00 32  
HERNANI

EGUZKI  
Zure denda

EGUZKI PERFUMERIA  
Kale nagusia 45 - Tel. 943 551 333 - HERNANI

EGUZKI  
PERFUMERIA  
Gure dendan,  
behar duzuna  
daukagu.

- Perfumeria  
- Opariak  
- Edertze gela  
- Solariuma  
- Ileapaindegia

## EA-EAJ koalizioak "ilegala eta partidista" jo du Udalak aterako lan eskaintza publikoa

■ Oposizioaren ustez, lan eskaintza publikoak ez du betetzen Funtzio Publikoaren Legerik eta helburua maiatzeko "dena ondo lotuta uztea" da

EUSKO Alkartasuna eta Eusko Alderdi Jeltzalea koalizioak salatu egin dut Aberzale Sozialistek Udaltxean eraman duen pertsonal politika. Kronikara bidalitako prentsa komunikatuan, EA-EAJk dio Udalak atera berri duen lan eskaintza publikoa "ilegala eta partidista" dela.

Oposizioaren esanetan, 16 lanpostu berri beteko dituen

lan eskaintza publiko horrek ez ditu betetzen Funtzio Publikoaren Legeak eskatzen dituen baldintzak.

EA-EAJk adierazi duenez, Udal Hauteskundearen atarian Udal Gobernuak organizazio administratiboa aldatu egin du eta Gobernuak berak enkargatutako enpresa espezializatuaren planak kontuan hartu gabe aldatu du. Oposizio

taldearen ustez, aldaketa administratibo horren helburua hauteskundeetarako "dena ondo lotuta uztea" da eta uste du desfase eta gabezi handiak ekarriko dituela ekonomia sail osoan. Gauzak horrela, EA-EAJren iritzirako, Errenta zerbitzua, praktikan, bururik gabe gelditu da eta horrek bilketan ondorio txarrak izango ditu. □

### BERTSOLARITZA - NAFARROAKO FINALA GAUR

## Legarreta: "Aseguratzera joanda ez dago ezer eta hasieratik dena ematera joango naiz"

■ Finala Lesakan da, Zanbra aretoan, 16:30etan.

XABIER Legarreta bertsolari aranoarrak Nafarroako Finala du gaur beste zazpi bertsolariarekin batean. Aranok Arzaillus, Colina, Silveira, Artetxe, Arozena, Zelaieta eta Elizagoien izango ditu gaur bertso-lagun eta kontrario. Seigarren finala du gaurkoa. Aurretik bi aldiz gelditu da bigarren, eta gaur txapelaren bila aterako da, kontrario oso gogorak dituela aitortu arren.

■ **Nola ikusten duzu zeure burua gaurko finalerako.**

Nere burua ongi ikusten dut, lasai eta kontzentratuta. Lan pixkat eginda nioa finalera. Sentsazio onak dauzkat.

■ **Orain arteko saioetan zer moduz ibili zara.**

Gustora ibili naiz. Ligan hiru saio egin nituen eta oso gustora aritu nitzen, eta lagunak ere oso ondo ikusi nituen. Gero, semifinalean, askotan pasatzen zaidana pasa zitzaidan. Ez



Xabier Legarreta, bertsolari aranoarra.

dakit, estutzen naizelako edo, uste dut ez dudala eman neza-keena ematen.

■ **Finalean zein estrategia**

**erabiliko duzu.**

Aseguratzera joanda ez dago ezer, eta hasieratik dena ematera joango naiz. Kontzentrazioari eutsi eta hasieratik txikitzera aterako naiz.

■ **Txapela ekartzera?**

Ahal dela bai, eta bestela, goiko postuetan gelditzera.

■ **Nola daude kontrarioak?**

Silveira oso fuerte. Amets eta Kolina ez dituz azkenaldian sumatu, baina, ondo omen dabilza. Gero, hor daude Arozena, Artetxe...

■ **Definitu zeure burua. Nolako bertsolaria da Xabier Legarreta Arano?**

Lan eta ariketa bizietan gozaten dut gehiena: ofiziotan, puntu erantzunean, elkarrizketetan. Bakarka berriz, gozatu ezinik ibili izan naiz orain arte, konfiantza gutxirekin. Uste dut orain ari naizela horri buelta ematen eta lan horietan ere eroso sentitzen. □

## Literatura astea antolatu dute Urumea Ikastolan

■ Apirilaren 2an Haur Literaturaren Nazioarteko Eguna da ■ Hori dela eta, zenbait ekitaldi egingo dituzte: Idazleen hitzaldiak, liburuen kritikak, ipui kontaketa eta abar.

URUMEA Ikastolak Literatura Astea antolatu du datorren asteazkenean, Apirilaren 2an, asteazkenean, Haur Literaturaren Nazioarteko Eguna da, Hans Christian Andersen idazle dinamarkarraren jaiotze urteurrena dela-eta. Egun horren bueltan, literaturaren inguruko ak-

tibitateak antolatu ditu Urumea Ikastolak. Batetik, Patxi Zubizarreta, Aitor Arana, Xabier Mendiguren, Miren Agur Meabe eta Antton Kazabon idazleek hitzaldiak emango dituzte. Eta bestetik, ikasleek berak ere lanak egingo dituzte: liburuen erreseinak, publiko aurreko

ariketak, ipui kontaketa eta abar. Pelikulak ere izango dira, eta ikasleek egindako lanak ere erakutsiko dituzte jende aurrean. Hans Christianen *Ahatetxo itsusia* da haur literaturaren aintzindaria eta ikasleek ipui horren lanketa berezia egingo dute ikastolan. □

### HITZ BITAN



Ane Villaverde eta Ander Zubillaga Musika Eskolako pianoan.

### MUSIKA ESKOLA

#### Villaverde, Zubillaga, Balerdi eta Ortega sarituak.

Piano jole gazteetako Donostia Hiria lehiaketa jokatu da Donostian eta Hernaniko Musika Eskolako 2 gazte sarituak izan dira: Ane Villaverdek 2. aipamena izan du eta Ander Zubillagak diploma. Guztira 48 gazte hartu dute parte 8-12 urte artean eta paper ona egin dute bi hernaniarrek. Villaverdek 3garren urtea du aurten pianoa ikasten eta aurrera segitzeko asmoa du Kronikari esan dionez. Zubillagak, berriz, 2garren urtea du aurtengoa eta ez dauka oso argi gerora piano jotzera dedikatu nahi duen. Bestalde, Eider Balerdi eta Joana Ortega musika eskolako ikasle izandakoek ere sariak lortu dituzte Donostia Hiria lehiaketan. Balerdik maila ertainean diploma lortu du eta Ortegak 3garren maila ertainean 3garren saria.

### JUBILATU ETXEA

#### Galiziara biajea, maiatzaren 23tik ekainaren 3ra.

Jubilatu Etxeak Galiziara bidaia antolatu du, Sansenxo ingurura, maiatzaren 23tik ekainaren 3ra. Galiziako beste herri eta lekuak ezagutzeko aukera ere izango da. Bidaia 350 euro da eta izen ematea zabalik dago. Sortea apirilaren 7an da, astelehena, arratsaldeko 17:00etan. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 006666  
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738  
▶ Gaez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738

### IRAGARKI MERKEAK

Desbrozadora bat daukat saltzeko. Bigarren eskuko HONDA UM 536. Interesatuak deitu: 943 55 54 36

Pisu konpartitu baten bila nabil. Koldo. Deitu: 943 55 49 64

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etatik 17:00etara. Deitu: 943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

Garajea salgai Urbieta kalean: 943 55 20 81

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (segurtasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: 627 51 97 76

LAGUNTZAILEA, agentea edo Justizi-ofiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegietan lana. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENaren deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomatu edo lizentziatua. Erdi mailako ingelera. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziarrik gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaituzte. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babesguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduata. Presta zaituzte. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

SUHILTZAILEAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezin hobek. Betebeharra: Eskola Graduata. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GARRAIOLARIA. Garraiolari profesional izateko gaitze-titulua lor ezazu ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARI laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduata. Presta zaituzte ADOZ 943 44 45 09

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. eskakizuna: Eskola Graduata. Presta zaituzte ADOZ 943 44 45 09

LIBURUTEGI laguntzailea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzaileak). Bertako udaletan deialdiak zabalik. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalerno bezala lan egiteko. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

JANTZI DENDA

## AMBOTO

AMBOTO  
Udaberriko erro-  
pak zure naurria  
jartzen ditugu.  
Hemen gaituzi.

Nagusia 54 - HERNANI - Tel.: 943 55 23 40

## ARALAR TABERNA

Zapa 8 - Tel.: 943 33 15 06 -